

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure produktua aurrera eraman ahal izateko jarduerak antolatzen ari ginela, ohartu ginen gutako bakoitzak esparru desberdinetan abileziak ditugula, eta dirua aurreztu ahal dezakegula lan horiek egiteko pertsona bat kontratatu ordez guk egiten baditugu. Horrela, gure produktua errentagarriagoa eta ekonomikoagoa izango da, eta etorkizunean etekinak lortzea errazagoa izango da.

Beraz, taldekide bakoitzak zeregin bat edukiko du, norberaren abilezietan oinarrituta. Baina, jarduera guztiak ezin ditugu guk bakarrik aurrera eraman, horregatik egingo ditugu elkarteak beste enpresa batzuekin. Baina jakina, gutako batek laguntzarik behar baldin badu beste lau taldekideak laguntzeko prest egongo gara.

Saioa betidanik izan da pertsona ireki bat, eta beste pertsonekin hitz egiteko trebetasun handia du. Norak, aldiz, gustuko du tratuak egitea edozein pertsonekin eta edozertaz inongo zailtasunik gabe. Horregatik, beraiek izango dira elkarteak egin behar diren enpresekin hitz egingo dutenak. Saioak eta Norak enpresa hauekin egin behar diren bilera guztietara joango dira. Gainera, mugikor berezi bat edukiko dute, enpresarako soilik erabiliko dutena. Horrela, beraien bizitza pertsonala eta lana desberdindu ahalko dute.



Baina, Nora teknikaria ere bada. Horregatik makinaren bat hondatzen bada bera joango da konpontzera. Hau da, makinaren mantenuaz arduratuko den pertsona izango da.

Sarari marrazketa tekniko eta gauzak irudikatzea asko gustatzen zaio. Horregatik, berak egin du makinaren diseinua. Hasiera batean zirriborroak egin eta egin egon zen eta beste taldekideei erakutsi zigun. Baina denbora pasa ahala eta bozetoak egin einean argiago eduki genuen nolakoa nahi genuen izatea makina. Azkenik, dena argi eta adostuta egon zenean azkeneko marrazkia egin zuen.

Naroari kontuak eramatearena, dirua kontatzearena eta horrelakoak gustuko ditu. Horregatik kontuak eramango ditu. Fakturak, aurrekontuak eta erosketak bere kargu egongo dira. Hasiera batean Naroak Saioari dudak galdetuko dizkio, enpresa bateren materialen prezioa etab., aurrekontua ondo osatu ahal izateko.

Ainhoak familian furgoneta bat du. Horregatik garraioaz arduratuko da, materialak erosten ditugun enpresatik makina eraikiko digun enpresara. Saioak

Ainhoari enpresen helbideak emango dizkio, eta Ainhoa helbide horietara joango da materialak hartu eta uztera.

Beraz, jarduera guztietatik:

-Gure enpresak: harremanak, diseinua, kontuak eta materialen garraioa.

-Kanpoko enpresen esku: makina sortu, makinak instalatu eta makinen dirua kontrolpean eduki.

